

LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

2018ko MARTXOAREN 15ean, LARRAULGO UDAL PLENO ARETOAN EGINDAKO OHIKO UDALBATZAREN AKTA

2018ko martxoaren 15ean, Larraulgo Udaletxeko Pleno Aretoan, gaueko 20.30 orduetan, Aneli Urbieta Etxeberria Alkate andrearen Lehendakaritzapean, behean aipatzen diren zinegotziak biltzen dira.


ZINEGOTZIAK: Gotzon Jauregi Sarasola
 Cristian Ivo Sebastian Pizarro Jofre
 Ander Leon Nanclares
 Angel Serrano Martinez
 Aritz Sarria Saraqueta
 Felix Joaquin Asensio Robles

Bertan dago, egintzaz fede emateko Ane Gomez Urteaga Idazkari-kontuhartzailea.

...//...

Alkate-lehendakari andreak bilerari hasiera ematen dio, ondorengo gaiak tratatzen direlarik:

1. Ondoren adierazten den Udalbatzarretako akta onestu, hala badagokio/
Aprobación, si procede de la siguiente acta Plenaria:
 ➤ 2018ko otsailaren 15ean egindako ohiko bilkura./ Sesión ordinaria de
 fecha 15 de febrero de 2018.
2. Alkatetza ebazpenen berri ematea/ Dación de cuenta de los decretos de Alcaldía.
3. Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitateari 2018 urteari dagokion 1. Eta 2.
Hiruhileko ekarpena burutzea, hala bada./ Aportación económica
correspondiente al 1. Y 2. Trimestre del ejercicio 2018 a Aiztondo
Zerbitzuen Mankomunitateari.
4. XIV. Aiztondo Klasikoa “Patxi Alkorta memoriale”-ri 2017 urteari
dagokion diru-laguntzaren kitapena onestea, hala bada./Aprobación de la
liquidación de la ayuda económica correspondiente a XIV. Aiztondo
klasikoa” Patxi Alkorta memoriale”.
5. XV. Aiztondo Klasikoa “Patxi Alkorta memoriale”-ri 2018 urteari dagokion
diru-laguntza burutzea, hala bada./Ayuda económica correspondiente a XV.
Aiztondo klasikoa” Patxi Alkorta memoriale”.
6. Erniozaleak Kultur Elkarteak eginiko diru-laguntza eskaera aztertu, hala
bada/Estudio de la solicitud de ayuda económica realizada por Erniozaleak
Kultur Elkarteak.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

7. 2018 ekitaldirako trakzio mekanikodun ibilgailuen gaineko udal zergaren errolda onartzea, hala bada/ Aprobación del padrón de vehículos de tracción mecánica correspondiente al ejercicio 2018.
8. 2018 urterako Udal zergen hobari eskaeren onespena, hala bada./Aprobación de las bonificaciones en los impuestos municipales correspondientes al ejercicio 2018.
9. A.U.E. jaunak, Larraulgo Murgilazpi Kirol Elkartearen izenean eginiko eskaera aztertu, hala bada/Estudio de la solicitud realizada por A.U.E, en nombre de Murgilazpi Kirol Elkartea.
10. Belako publizitatea eta komunikazioak eginiko diru-laguntza eskaeraren azterketa, hala bada./ Estudio de la solicitud de ayuda económica realizada por Belako publizitatea eta komunikazioak.
11. Tolosaldeko Arraun Klubak eginiko diru-laguntza eskaeraren azterketa, hala bada/ Estudio de la solicitud de ayuda económica realizada por Tolosaldeko Arraun Kluba.
12. Harituz Bertsozale Elkarteak eginiko diru-laguntza eskaeraren azterketa, hala bada./ Estudio de la solicitud de ayuda económica realizada por Harituz Bertsozale Elkarteak.
13. Fakturak eta ordainketak/ Pagos y facturas.
14. Beste batzuk/Otros.
15. Erregu, galderak eta mozioak/Mociones, ruegos y preguntas.
 - 15.1. Eudelek aurkezturiko, 2018ko martxoaren 8rako adierazpenaren onspena/Aprobación a la declaración del 8 de marzo de 2018 presentada por Eudel.
 - 15.2. Tolosaldea Sahararekin Elkarteak aurkezturiko mozioaren onspena/Aprobación de la moción presentada por Tolosaldea Sahararekin Elkarteak.
 - 15.3. Larraulgo Herritarrak aurkezturiko adierazpenaren onspena /Aprobación de la declaración presentada por Larraulgo Herritarrak.

.../...


LEHENENGO PUNTUA

ONDOREN AIPATZEN DEN UDALBATZAREN AKTA ONESTU, HALA BADA.

- ☐ 2018 urteko otsailaren 15eko Udalbatzaren ohiko akta. Irakurri ondoren bertaratuek aho batez onesten dute.

BIGARREN PUNTUA

ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Alkate andreak azkeneko Udalbatzarretik emandako ebazpenen berri ematen du:

05/2018 Alkatetza Ebazpena, martxoaren 15ekoa, 2017ko abenduaren 31ko datarekin, 720.000.00.04 partidan kobratzeko geratzen diren 743,22 euroak ezabatzea, ebazten duena.

Bertaratuak jakinaren gainean gelditzen dira.

HIRUGARREN PUNTUA

AIZTONDO ZERBITZUEN MANKOMUNITATEARI 2018 URTEARI DAGOKION 1. ETA 2. HIRUHILEKO EKARPENA BURUTZEA, HALA BADA

Ikusirik 2018ko urtarrilaren 18an Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitateak aurkezturiko idatzia, non 2018 ekitaldiko 1. eta 2. hiruhilabetean sortu daitezkeen gastuei aurre egin ahal izateko Larraulgo Udalak burutu beharreko ekarpena 16.000,00 eurokoa dela adierazten den. Ekarpena, Larraulgo udalak eskatuta, ondoren zehazten den moduan banatzen da:

- Gizarte zerbitzuak: 10.000,00 euro
- Kultura: 6.000,00 euro

Ikusirik kreditu nahikoa aurreikusia dagoela 2018 urteko udal aurrekontuetako 421.230.00.01 eta 421.330.00.01 partidetan.

Gaia aztertu ondoren, bertaratuak, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DUTE


LEHENGOA.- Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitateari 16.000,00 eurotako ekarpena burutzea 2018 ekitaldiko 1. eta 2. hiruhilabetean sortu daitezkeen gastuei aurre egiteko. 2018 urteko udal aurrekontuetako 421.230.00.01 eta 421.330.00.01 partiden kargura. Kontzeptu hauetan banatuta:

- Gizarte zerbitzuak: 10.000,00 euro
- Kultura: 6.000,00 euro

BIGARRENA.- 16.000,00 eurotako gastua onartzea.

LAUGARREN PUNTUA

XIV. AIZTONDO KLASIKOA “PATXI ALKORTA MEMORIALA”-ri 2017 URTEARI DAGOKION DIRU-LAGUNTZAREN KITAPENA ONESTE, HALA BADA



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Ikusirik Aiztondo Klasikoa Batzordeak, XIV. Klasikoa “Patxi Alkorta Memoriala” antolatu ondoren, emandako diru-laguntzen kitapena prestatu duela, Larraulgo Udalaren kasuan jarritako diru-kopurua 647,15 euro izan ziren eta kostatu zena, Larraulgo kasuan 742,65 euro izan ziren. Beraz, 95,50 euroko defizita izan du.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez ondorengo

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Aiztondo Klasikoa Batzordeak XIV. Klasikoak, “Patxi Alkorta Memoriala” antolatu ondoren, aurkezturiko kitapena onesten da.

BOSTGARREN PUNTUA

XV. AIZTONDO KLASIKOA “PATXI ALKORTA MEMORIALA”-ri 2018 URTEARI DAGOKION DIRU-LAGUNTZA BURUTZEA, HALA BADA

Ikusirik Aiztondo Klasikoko Batzordeak, XV.. Aiztondo Klasikoaren “Patxi Alkorta memorialaren” aurrekontua bidali duela, guztira 19.000 eurotako dena, martxoaren 4an ospatu dena. Larraulgo Udalari 615,13 eurotako ekarpena egin dezan eskaera egiten duelarik.

Ikusirik 2018ko Udal aurrekontuetako 422.340.00.02 partidan aurrekontu nahikoa aurrrikusten dela gastu honi aurre egiteko.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo

ERABAKITZEN DU:

LEHENGOA.- Aiztondo Klasikoko Batzordeak aurkeztu duen aurrekontua onartzea eta 615,13 eurotako ekarpena burutzea.


BIGARRENA: 615,13 eurotako gastua onestea.

SEIGARREN PUNTUA

ERNIOZALEAK KULTUR ELKARTEAK EGINIKO DIRU-LAGUNTZA ESKAERA AZTERTU, HALA BADA

Ikusirik Erniozale Kultur Elkarteak eginiko eskaera, non azaltzen duten Zortzi Herrien arteko ibilaldia antolatu dutela, maiatzaren 13an. Ibilaldia aurtan, Albizturren hasi eta bukatuko da. Horretarako ibilbideak txukundu eta margotzea beharrezkoa egiten da.

Goian aipaturikoa gauzatu ahal izateko, Larraulgo Udalari 333,00.-eurotako diru-laguntza eskaera egiten dio Erniozale Kultur Elkarteak.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Ikusirik 2014ean sinatutako, Erniozaleak Kultur Elkartea, Aiako Udalak, Albizturgo Udalak, Alkizako Udalak, Asteasuko Udalak, Bidegoiango Udalak, Errezilgo Udalak, Hernialdeko Udalak eta Larraulgo Udalaren arteko hitzarmenaren onespena, Ernio inguruan dauden zortzi herrien artean bi urtez behin egiten den ibilaldiaren antolaketa arautzeko.

Ikusirik 2018ko udal aurrekontuetako 422.340.00.03 partidari nahiko diru kopurua aurrikusi den gastu hau egiteko.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENGOA.- Erniozaleak Kultur Elkarteari 333,00.-eurotako diru-laguntza ematea.

BIGARRENA.- Erniozaleak Kultur Elkarteari jakinarazi, Larraulgo Udalean aurkeztu beharko duela izan dituen gastuen kitapena, memoria eta fakturak.

ZAZPIGARREN PUNTUA

2018 EKITALDIRAKO TRAKZIO MEKANIKODUN IBILGAILUEN GAINEKO UDAL ZERGAREN ERROLDA ONARTZEA, HALA BADA

Idazkariak 2018 ekitaldirako Trakzio Mekanikoko ibilgailuen gaineko Udala Zergaren Erroldaren berri ematen du, kuota gordina 21.602,67 eurotako delarik.

Bertaratuek, aipaturiko errolda fiskala azterturik, ahobatez,


ERABAKITZEN DUTE

LEHENA.- 2018 ekitaldirako Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zergari dagokion Udala errolda onartzea eta 11/1989 Legeak, Herri Ogasunei buruzkoak 14.1 artikuluan xedaturikoari jarraituz hilabeteko epean espedientea jendaurrean ipini, dagokion iragarkia udaletxeko iragarki taulan eta web orrian argitaratu ondoren, edonork aztertu eta egoki dituen iradokizunak burutu ditzan.

BIGARRENA.- Aipaturiko zerga ordaintzeko borondatezko epea, onarturiko 2018 ekitaldirako Zerga Egutegiari jarraituz, 2018ko apirilaren 3etik ekainaren 4ra bitartekoa izatea.

ZORTZIGARREN PUNTUA

2018 URTERAKO UDAL ZERGEN HOBARI ESKAEREN ONESPENA, HALA BADA



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Ikusirik 2018 urterako Udal zerga-tasen hobari eskaerak egiteko 2018ko otsailaren 1etik 28 arte epea ireki zela, 12 eskaera egon direlarik.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez ondorengo

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Ondoren zerrendatzen diren 2018 urterako udal zerga-tasen hobari eskaerak onestea:

TITULARRA	ZERGA	ARRAZOIA	ZENBATEKOA
O.O.R	OHGZ	FAMILI UGARIA	% 50
M.S.G	OHGZ	FAMILI UGARIA	% 50
I.A.O	OHGZ	FAMILI UGARIA	% 50
M.M.T.	OHGZ	FAMILI UGARIA	% 50
J.A.A.	OHGZ	FAMILI UGARIA	% 50
A.A.J	OHGZ	EGUZKI APROBE.	% 25
I.O.D.	OHGZ	EGUZKI APROBE.	% 25
L.M.T.	OHGZ	EGUZKI APROBE.	% 25
A.I.R.	OHGZ	EGUZKI APROBE.	% 25
I.U.A.	TMIGZ	IBILGAILU HISTO.	% 50
K.J.S.	TMIGZ	IBILGAILU HISTO.	% 50
J.U.	TMIGZ	IBILGAILU HISTO.	% 50
J.U.	TMIGZ	IBILGAILU HISTO.	% 50

BIGARRENA: Erabaki honen berri interesdunei ematea.

BEDERATZIGARREN PUNTUA


A.U.E. JAUNAK, LARRAULGO MURGILAZPI KIROL ELKARTEAREN IZENEAN EGNIKO ESKAERA AZTERTU, HALA BADA

Ikusirik A.U.E. jaunak, Murgilazpi Kirol elkartearen izenean eginiko eskaera, non azaltzen duen Herri ostatua itxita dagoen bitartean kultur ekintzak daudenean herrian, ostatua irekitzeko baimena eskatzen du, zerbitzu hori emanaz, ateratako dirua pilota elkartearentzat izango delarik.

Gaia azterturik, Aneli Urbietta eta Gotzon Jauregiren abstentzioarekin, Udalbatza honek, gehiengoz, ondorengo

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Herri Ostatua itxita dagoen bitartean, herrian kultur ekintzak antolatzen direnean, Murgilazpi Kirol elkarteari baimena ematea ostatua irekitzeko.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

BIGARRENA: Murgilazpi Kirol Elkarteari jakinaraztea erabiltzen duten bakoitzean, lokala txukun eta garbi utzi beharko duela.

HAMARGARREN PUNTUA

BELAKO PUBLIZITATEA ETA KOMUNIKAZIOAK EGINIKO DIRU-LAGUNTZA ESKAERAREN AZTERKETA, HALA BADA

Ikusirik Belako publizitatea eta komunikazioak eginiko eskaera, non 2018 urterako aurrekontuan Txantxangorri aldizkariaren harpidetzarekin jarraitzeko eskaera kontutan hartzea, eskatzen duen.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo

ERABAKITZEN DU:

LEHENGOA.- Larraulgo Udalak, 2018 urtean Txantxangorri aldizkariaren bi harpidetza egiten jarraitzea.

BIGARRENGOA: Erabaki honen berri Belako publizitatea eta komunikazioari ematea.

HAMAIKAGARREN PUNTUA

TOLOSALDEA ARRAUN KLUBAK EGINIKO DIRU-LAGUNTZA ESKAERAREN AZTERKETA, HALA BADA

Ikusirik Tolosaldea Arraun klubak eginiko eskaera, non Emakumezkoen traineru bat antolatzeko asmoa dutela eta horretarako diru-laguntza eskaera egiten duten, 0,50 euro biztanleko eskaera eginik.

Ikusirik 2018ko udal aurrekontuetako 422.341.00.03 partidari 125,00 euro aurreikusitako direla.


Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo

ERABAKITZEN DU:

BAKARRA: Tolosaldea Arraun Klub-ari 125,00 euroko diru-laguntza ematea, Tolosaldean emakumezkoen trainerua atera dadin laguntzeko.

HAMABIGARREN PUNTUA

HARITUZ BERTSOZALE ELKARTEAK EGINIKO DIRU-LAGUNTZA ESKAERAREN AZTERKETA, HALA BADA



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Ikusirik Harituz Tolosaldeko Bertsozale Elkartek eginiko eskaera, non azaltzen duten helburua dela Tolosaldean bertsolaritza belaunaldiz belaunaldi transmititzea eta horretarako beharrezkoa dutela soldatapeko irakasle bat kontratatzea(koordinazio, Bertso eskola eta Komunikazio lanak egingo dituen), beraz azken honen soldata ordaintzeko diru-laguntza eskaera egiten dute.

Ikusirik 2018ko udal aurrekontuetako 422.334.00.03 partidan 500,00 euro aurreikusi direla.

Gaia aztertutik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:


LEHENA: Harituz Tolosaldeko Bertsozaleen Elkarteari 500,00 euroko diru-laguntza ematea.

BIGARRENA: Harituz Tolosaldeko Bertsozaleen Elkarteari jakinaraztea udaletxe honetan emandako diru-laguntza zuritzeko urteko memoria, gastu eta sarreren kitapena, gizarte segurantzaren eta zerga ogasunean egunean daudela dioen aitortpena eta dagozkion fakturak aurkeztu beharko dituela.

HAMAIRUGARREN PUNTUA **FAKTURAK ETA ORDAINKETAK**

Alkate-Lehendakari andreak ondorengo faktura zerrenda aurkeztu du:

MATTIN	5,65
NORA URBIZU	22,96
ASTEASUKO UDALA	138,69
TOLOSAKO UDALA	94,50
TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEA	832,57
BERRI LANTEGIA	159,38
BERRI LANTEGIA	245,76
ALKIZAKO UDALA	674,88
SANDRA GAVARRO	312,00
CORREOS	0,82
DIONISIO ORMAZABAL	22,11
URBIETA	90,75
FERRETERIA BARBE	89,69
SETALDE	69,45
GIPUZKOAKO ALDIZKARI OFIZIALA	169,95
ZU ETA BLOK	751,41
EBA ERKIZIA	1.572,16



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

KEY-LAN	140,02
KIROLZER	58,60
MANPEL	211,75
TOLOMENDI	155,55
AMF	189,01
DEPORTES URBANOS	1.694,00
IBERDROLA	303,08
IBERDROLA	347,63
IBERDROLA	71,70
IBERDROLA	31,33
IBERDROLA	185,02
IBERDROLA	115,42
IBERDROLA	312,88
NATURGAS ENERGIA	534,66
NATURGAS ENERGIA	237,47
MOVISTAR	17,40
MOVISTAR	134,23
MOVISTAR	74,52

Udalbatzarrak **aho batez** hurrengoa,

ERABAKITZEN DU

BAKARRA.- Aipaturiko fakturak, denera **10.067,00** Eurotako kopurua osatzen dutenak onartzea.

HAMALAU GARREN PUNTUA

BESTE BATZUK

Ez dira aurkezten.


HAMABOST GARREN PUNTUA

ERREGU, GALDERAK ETA MOZIOAK

15.1.EUDELEK AURKEZTURIKO, 2018KO MARTXOAREN 8RAKO ADIERAZPENAREN ONESPENA

Ondoren, Eudelek auzeturiko adierazpenaren berri ematen da, ondorengoa diolarik:

“2018ko MARTXOAREN 8rako ADIERAZPENA



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Zer gertatzen da emakumeek ez badute zaintzen, ez kontsumitzen, ez lan egiten, ezta parte hartzen ere?

Hausnarketa horrexek eraginda, iaz mugimendu feministak emakumeen nazioarteko greba-deialdi bat egitea erabaki zuen, non eta 70 herrialdetan baino gehiagotan; aurten, 2018an, "Emakumeok planto. Nosotras paramos" leloaren pean errepikatuko da. Grebaren xedea da emakumeen lanak gure gizartean duen inpaktua ikusaraztea eta lan hori aintzat har dadila eskatzea.

Gure gizartearen ongizatea ezinezkoa litzateke bizitzari eusteko ezinbesteko jarduerak egingo ez balira, hala nola, pertsonak zaindu (haurrak, adinekoak, mendekoak...) edo etxeko lanak egin. Lan horietako gehienek ez dute ordainsaririk, eta batez ere emakumeek egiten dituzte. Emakumeen ekarpenik gabe, gizartea geratu egingo litzateke.


Emakumeen lanaren zatirik handiena ez da ikusten eta ez da kontabilizatzen. Horrek esan nahi du etxeetan ekoiztako ondasunen eta aberastasunaren balioa gutxietsi egiten dela, nagusiki emakumeek egiten dituzten zeregin hauen orduak eta ekarpen ekonomikoa ukatu eta ikusezin bihurtzen direla, eta zeregin horiek zaintza, osasun, giza eta babes arloari egiten dioten aurrezpen sozial handia ere ikusezin bihurtzen dela.

Lan-merkatuaren barruan eta kanpoan eskainitako orduak kontuan izanez gero, emakumeek gure gizarteko lanaren %56 egiten dute, baina baita ordainsaririk gabeko lanaren %74 ere. Gainera, feminizatutako lan asko, batez ere emakumeek egiten dituzten lan asko, enplegu prekarizatukoak dira edo lan-merkatuko ezkutuko ekonomiakoak. Sektore horretan, gainera, migratutako emakume ugari enplegatzen dira, eta beroriek jatorrizko inguruneetan beren haurrak beste emakume batzuen zaintzapean utzi behar izan dituzte; hala, zaintza-kate globalak sortzen dira.

Eta egiten dituzten zereginenez harantzagoko kontua da; izan ere, emakumeek zaintzan eta etxeko lanetan igarotzen duten denboraren ondorioz, gizonen denbora gehiago dute beren karrera profesionala eta lan-munduko karrera garatzeko, edo aisiako edozein jarduera sozial egiteko, emakumeek jarduera horietan sartzeko zailtasunak izan arren.

Denboraren erabilera desberdin hau traba handia da berdintasuna lortzeko, eta gizon eta emakumei buruzko estereotipoak betikotzeaz gain, generoaren ondoriozko erantzukizunak uztartzeko egiturazko oztopo ere bada, besteak beste.

Horregatik guztiagatik, ezinbestekoa da gizarteak aitortzea zaintza-lana ezinbestekoa dela bizitzaren iraunkortasunerako; zaintzen inguruko jendarte mailako antolakuntza berri bat babestu beharra dago zeregin hori beste modu batera hornitzeko, gizonen erantzukidetasuna sustatu beharra dago, gizartea antolatzeke modu honen ondorioz



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

erabakimen- eta botere-guneetan emakumeen talentuaren galera dagoela ikusarazi behar da, antolakuntza- eta enpresa-kultura berdintasunarekin lerrokatu behar dira, eta bizitza pertsonalaren eta laneko bizitzaren kontziliazioa sustatuko duten zerbitzu publikoak indartu behar dira.

*Egoera honetaz OHARTZEN DENEZ, **LARRAULGO Udalak hitza ematen du***

- *Sentsibilizazio eta trebakuntza-programak garatuko dituela, zaintzan eta etxeko lanetan gizonen erantzunkidetasuna sustatzeko eta erabakitzeo guneak emakumeekin partekatzeo.*
- *Bere eskumenen alorrean lagunduko duela zaintza babesteko baliabideak eta zerbitzu publikoak garatu eta finkatu daitezen, eta zaintzen arloan erantzunkidetasun sozialerako komunitateko estrategien artikulazioa sustatu dadin.*
- *Udaleko politikak genero-ikuspegiarekin garatuko dituela.*
- *Balioen transmisioa azpimarratuko duela, berdintasunezko gizartea lortzeko kultura-aldaketak susta daitezen.*

Azkenik, herritarrei dei egiten die martxoaren 8a Emakumeen Nazioarteko Eguna dela-eta antolatu eta deituko diren ekitaldi eta ekintzetan modu aktiboan parte har dezaten.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, EUDEL-ek aurkezturiko” Martxoak 8: Emakumeen nazioarteko eguna” adierazpen instituzionala bere osotasunean onesten du.


15.2. TOLOSALDEA SAHARAREKIN ELKARTEAK AURKEZTURIKO MOZIOAREN ONESPENA

Ondoren Tolosaldea Sahararekin Elkarteak aurkezturiko mozioaren berri ematen da, ondorengo dioelarik:

“Saharar Errepublika Arabiar demokratikoa (SEAD) aldarrikatu zeneko 42. urteurrenean, Tolosaldea Sahararekin elkarteak Larraulgo udalbatzari ondoko mozioa aurkezten dio hurrengo ohiko plenoan eztabaidatu bozkatu eta onartu dezan.

Udalbatza honek ondokoa adierazi eta eskatzen du:

1.-Mendebaldeko Saharako lurralde okupatuetan etengabe gertatzen diren manifestazio eskubidearen zanpaketa, atxiloketak, torturak eta tratu txarrak, bortxaketak, desagerketak, deportazioak eta orokorrean giza



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

eskubideen aurkako erasoen salaketa irmo eta erabateko gaitzespena adierazten du.

2.-Mendebaldeko Sahararako Erreferendumaren Nazio Batuen Erakundearen Misioa (MINURSO) giza eskubideen arloko eskuduntzak izan dezan eskatzen du, Nazio Batuen erakundeak (NBE) munduan zehar hedaturik dauzkan misioen artean giza eskubideen arloa baztertzen duen misio bakarra izateari utzi diezaion.

3.-Sahararrei eta pertsona orori dagokigun mugimendu askatasunaren errespetua eta Mendebaldeko Saharako biztanleak zatitzen duen 2600km luze den lotsaren harresia eraistea eskatzen du.

4.-Mendebaldeko Saharako baliabide naturalen legez kanpoko ustiatzeari uko egitea eta zehazki,saharar arrantza bankuetan arrantza egiteko Europar batasuneko (EB) eta Marokoko estatuaren arteko ituna etetea eskatzen du.

5.- Europar Batasuneko (EB) gainontzeko estatuekin batera, Saharar Errepublika Arabiar Demokratikoaren (SEAD) autodeterminaziorako eta independentziarako eskubidea aitortzea eta nazioarteko zuzenbidean jasotako jurisprudentzian oinarrituz, Mendebaldeko Saharako kolonizazio prozesua amaitzea eskatzen du.


6.- Espainiar estatuko diputatuen kongresuak ebatzitakoa behingoz betetzea eta gerran aurkitzen diren estatuiei, Marokokoa kasu, armak saltzea debekatzen duen ebazpena betetzea, hau da, bere legedia betetzea eskatzen du.

7.-Saharar Errepublika Arabiar Demokratikoa (SEAD) aldarrikatu zeneko 42. urteurrenarekin bat etorrituz, 2018ko Otsailaren 27an Mendebaldeko Saharako bandera udaletxean zintzilikatzea adosten du.

8.-Aipatu den urteurrena dela eta, udalbatza honek bat egiten du 2018ko otsailaren 27an arratsaldeko 18: 30etan Tolosako Udaletxe aurrean, Tolosaldea Sahararekin elkarrekin ditutako elkarretaratzearekin "Maroko Saharatik at Independentzia Mendebaldeko Sahararentzat" lemapean."

Gaia bozkatu egiten da, ondorengo delarik emaitza:

- Aldeko botoak: Urbietta, Serrano, Pizarro eta Jauregi Alkate/Zinegotziak
- Kontrako botoak: 0
- Abstentzioak: Asensio, Leon eta Sarria zinegotziak.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Beraz, bozketaren emaitza ikusirik, Udalbatza honek gehiengoz, Tolosaldea Sahararekin Elkartek aurkezturiko mozioa bere osotasunean onesten du.

15.3.LARRAULGO HERRITARRAK AURKEZTURIKO ADIERAZPENAREN ONESPENA

Ondoren, Larraulgo herritarrak aurkezturiko adierazpenaren berri ematean da:


" EZ DA POSIBLE

2016ko urriaren 14tik, azoka eta festa eguna Altsasun, herri oso bat justizia eta egia eske dabil. Justizia eta egia eske, egun hartan goizaldeko 5:00etan jazo zen eta oraindik ere argitu gabe dagoen gertakariaren ondorioz.

Apirilaren 16tik 27ra bitartean terrorismoaren akusaziopean 375 urteko eskaera fiskala egiten dien epaiketari egin beharko diote aurre herriko hainbat gaztek. Ainarari 12,5 urteko espetxe zigorra eskatzen diote; Adur, Iñaki, Julen, Aratz, Jonan eta Jokini 50 urtekoa eta Oihani 62,5 urtekoa. Epaiketa gauzatzen denerako, epaitegien aurrean euren borondatez aurkeztu arren, gazteetako hiruk urtebete eta bost hilabeteko espetxe zigor prebentiboa beteta izango dute. Zigorra epaituak izan gabe, euren etxeetatik 400km baino gehiagora, espetxe ezberdinetan eta FIES erregimenean; euren eskubideak nabarmenki urratuak direlarik.

Prozesu honetan eskubideen urraketa agerikoa izaten ari da. Oinarrizko eskubideak urratzen ari dira, hala nola, errugabetasun-presuntzioa, epaile natural eta inpartzial bat izateko eskubidea edota defentsarako eskubidea. Azken honetan, lekuko frogak, adituen frogak eta frogak dokumental ia guztiak deuseztatuak izan dira. Kontuan hartu diren bertsio bakarrak Guardia Zibilarenak izan dira, zeina auziaren parte den. Eskubide eta askatasunen larrialdi egoera batean aurkitzen gara, eta honen ondorioak gizarte osora zabal daitezke. Honen guztiaren erabilera, ideiak kriminalizatzeko eta eskubide demokratikoak murrizteko zabaltzearen arriskuarekin. POSIBLE EZ DEN! egoera baten aurrean aurkitzen gara.

Musikaren munduko profesionalak, zinemaren mundukoek, kirolariek, idazleek, bertsolariek, feministek, kazetariak, erretiratuek, sindikatuek... prozesu hau guztia arbuia dute. Altsasu Gurasoak-ek sustatutako manifestuak 80.000 atxikimendu bildu ditu eta maila politiko zein juridikoan jasotako babes keinuak ere hamaika izan dira: 194 legegari eta unibertsitateko irakasle; 83 alkate; Madrilgo 88 diputatu eta senatari, 8 alderdi politikoren ideologia dibertsitatea irudikatuz; eta 52 euro-parlamentari Bruselan. Europar Parlamentuko hainbat kidek ere Europar Batasuneko Oinarrizko



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Eskubideen Kartagatiko errespetua bermatzeko erakunde komunitarioen interbentzioa eskatu dute.

Hau gutxi balitz, Nafarroako Auzitegi Probintzialak sendo eta zabal argudiatu zuen "Ez dugu balizko terrorismo deliturik ondorioztatzera eraman gaitzakeen arrazoizko adierazpenik antzematen" eta auzia Nafarroako epaitegi batean epaitzea eskatu zuen. Auzitegi Gorenak, hala ere Entzutegi Nazionalean epaitzea erabaki zuen Nafarroako Auzitegi Probintzialak emandako argudio juridikoei aurka egin zien Auto batean.

Gauzak horrela, Larraulgo Herritarrak udal taldeak erabateko atxikimendua eman nahi dio aurreko adierazpenari eta Apirilaren 14an Iruñean burutuko den manifestazioari."

Gaia bozkatu egiten da, ondorengo delarik emaitza:

- Aldeko botoak: Urbieta, Leon, Jauregi, Pizarro, Sarraia eta Serrano Alkate/Zinegotziak.
- Kontrako botoak: Asensio zinegotzia
- Abstentzioak: 0

Bozketaren emaitza azterturik, Udalbatza honek, gehiengoz, Larraulgo Herritarrak aurkezturiko adierazpena onesten du.

Beste gairik ez dagoenez, gaueko 21.00 orduak direnean Alkate jaunak bilera amaitutzat ematen du, nik, Idazkari-Kontuhartzaile naizen honek akta honetan jasotakoa ziurtatzen dudalarik.

ALKATEA

IDAZKARI-KONTUHARTZAILEA